




ITZAL (IKO) BAGINA





ZEHARKATU
GAIUENA
PERFORMATZEN

SINOPSISIA

Bertsoa oinarritzat duen antzerki ikuskizuna da. Bere trama izaerak hiru pertsona(i) bertso munduko zein haien **barne munduko bakardadetik kolektibora** eramango ditu. Barruan dituzten itzalen eta kanpoko errealitatearen linboan elkar ikusten ikasiko dute. Egungo sistema indibidualistari kritika egiteko asmoa du obrak. Bertso munduan kokaturiko istorio bat izan arren, ez du bertsoaz hitz egiten, haratago doazen auzi sozialetara salto egin nahi du: generoa, osasun mentala, familia nuklearra, meritokrazia...

Itzalek leku garrantzitsua hartuko dute ikuskizunaren zehar. Izan ere, teladun hiru markoren atzean proiektatuko dira zenbait pasarte. Arropen eta argien koloreekin jolastuko da. Zuritik abiatuta gorri, berde, eta moreak hartuko dute protagonismoa antzezlanaren aurrera joan ahala. Kolore bakoitzak esanahi bat hartuko du eta **argi jokoek** garrantzia izango dute.

LOKATZ LOREAK

SORMEN TALDEA



Janire Arrizabalaga, Izaro Bilbao eta Araitx Katarainek sortu genuen 2022ko udan, bertso munduan gure tokia aurkitzeko helburuarekin.

Lehen proiektua “*Friki Saioak*” izendaturiko 5 saioko bertso zirkuitoa izan zen. Bertan, Harry Potter zein horoskopoa bezalako gai “ez ohikoak” ardatz hartuta ikus-entzunezkoak eta bertsoa uztartzen zituzten saioak antolatu genituen.

Gerora, 2022ko BTNko tira komikoak egin genituen *poto-eus*-ekin kolaboratuz, bertsolari aldizkarian ere egin ditugu gure lantxoak.

Une honetan, “**Itzal(iko) Bagina**” antzezlanana dugu eskuartean, lehengo hariari segika ikus-entzunezkoen eta bertsoaren arteko harremana mantentzen segitu nahi dugu.

*“Zer gertatzen da azalaren eta ehunaren artean?
Zer gertatzen da gorputz baten eta ahots baten artean?
Zer gertatzen da komun bateko lau hormen artean?
Zer gertatzen da pentsatzen denaren eta abesten denaren artean?
Zer gertatzen da bi belaunaldiren artean?
Zer gertatzen da taldearen eta norbanakoaren artean?
Zer gertatzen da oholtzaren eta gorputzaren artean?
Zer gertatzen da egiten duzunaren eta ezkutatzen duzunaren eta
ikusten dutenaren artean?
Zer gertatzen da ahoaren eta sabelaren artean?
Zer gertatzen da lotsaren eta lehiaren eta soinaren artean?
Zer gertatzen da batzen gaituenaren eta banatzen gaituenaren artean?
Zer gertatzen da ematen dugunaren eta kentzen dugunaren artean?
Zer gertatzen da hiru keinu eta sei begiren artean?
Zer gertatzen da norberaren eta norberaren artean?
Gertakaria izendaezina da.
Egin zuloak murruei.
Banatzen gaituzten uretan batuko gara.”*

LEIRE VARGAS NIETO

“Egun kontrako paradigma saldu badigute ere, Hego Afrikan eta antzinako hainbat zibilizaziotan argi zuten: ni beste zu bat naiz eta zu beste ni bat zara, zuri esker banaiz eta niri esker bazara.

Ezin indibidualak kolektiboari ihes egin, ez alderantziz. Nire minak nireak dira ala denok ditugu antzeko minak inkontziente kolektibo horretan gordeta? Nigandik sortu dira ala guztiok interpelatzen gaituzte? Nirea al da nire nortasuna bera? Nondik datorkit? Itzali daiteke?

Haurtzarotik helduarorako saltoan topo egin – edo, itzalaren itzalez, topo egin ezinean ibili – eta hiru ahotsetara gorputza, lotsa eta lehia parez pare jarri eta argi-ilunez betetako ni-tik gura bidaia proposatzera datoz lehen, bigarren eta hirugarren aulkiko neskak. Ez itzali itzalik.”

OLATZ SALVADOR ZALDUA

“Bertsotan egiteko, egoteko eta jagoteko modu eder eta irudimentsu bat dakarkigute Lokatz Loreek.”

NEREA IBARZABAL SALEGI





ARAITZ KATARAIN MUGARZA (2004)

19 urteko bertsolari mallabitarra naiz. Gizarte Antropologiako bigarren maila ikasten ari naiz Donostian. Duela zazpi bat urte hasi nintzen bertsotan Berrizko bertso eskolan.

Lokatx Loreak Sormen taldeko kidea ere naiz, Iزارo Bilbaorekin eta Janire Arrizabalagarekin batera.

11 bat urterekin lehen antzerki klaseak jaso nituen eta harremana mantendu dut diziplina honetan. Gogotsu nago sortu duguna plazara ateratzeko. Lotsak jaten ez nauen artean saiatuko naiz onena ematen.

IZARO BILBAO AROSTEGI (2004)

19 urteko bertsolari mungiarra naiz, 11 urte nituela hasi nintzen bertsotan. Egun, Psikologiako gradua ikasten ari naiz EHU-n.

Lokatx Loreak Sormen taldeko kidea naiz Araitx Katarainekin eta Janire Arrizabalagarekin batera.

Txikitatik izan dut interesa bertsolaritzaz haratago doazen zenbait diziplinan: literaturan, kantuan, marrazkigintzan eta antzerkian trasteatzen ibili izan naiz. 8 urtez jardun nuen azken honetan, beraz abiatu berri dugun proiektuak grina berezia pizten dit. Aukerak aprobetxatzeko prest nago, eta bizitza ilusioz hartzeko gogoz.

JANIRE ARRIZABALAGA MUNDUATE (2003)

20 urteko bertsolari gernikarra naiz eta jada sei bat urte izango dira jardun honi ekin niola. Horrez gain, Ikus-entzunezko gradua gauzatzen ari naiz EHU-n eta diseinu grafikoko lanak egiten ditut eskariz.

Lokatx Loreak Sormen taldeko kidea naiz Iزارo Bilbaorekin eta Araitx Katarainekin batera.

Eskolan antzerki bat edo beste egina banaiz ere, ez dut lotura handiegirik antzerkiarekin. Beraz hau nire lehen aldi gisa hartuko dut, gogoz eta ilusioz lan berrian abiatzeko.



IRAITZ LIZARRAGA GOMEZ (1979)

Zizurkilen jaiotako 44 urteko euskal aktore, zuzendari eta akrobata da. Arte eszenikotan Doktore da eta Gorputz Adierazpeneko irakasle EHU-n. Gure Zirkugunean zirku-teknikak irakasten ditu eta antzerki irakasle ere bada.

Antzerkian aktore moduan parte hartu du “Zaldi urdina”, “Baginaren bakarrizketak” eta “Zapaldu marra” lanetan, besteak beste. Pikor teatro, Txalo, Artedrama, Erre produkzioak eta Trapu zaharra antzerki konpainietan lan egin du.


Zuzendari laguntzaile lanetan aritu da Txaloren “Arrastoa”, “Hil arte bizi” eta beste hainbat obratan. 2023an Lankuk ekoitzitako “Teilatupean” antzezlanari idatzi eta zuzendu du.

Egun “Gure Zirkua”ko partaide ere bada.

Disziplina-artekotasunean duen esperientzia luzea gehitu dio emanaldiaren izaerari.

Bersolaritzan aritu ez den arren, aste eszenikoetatik ekarritako jakinduria baliatu dugu.





***“ Gure barne berbaro
masail odoluste
zure lotsek nireak
ulertzen dituzte
erru honen errudun
zarenik ez uste
ez gara gu eraiki
eraiki gaituzte “***

***“ Zure frustazioak
iturria non du?
Lana, haurrak, argaldu,
elizan ezkondu...
gehienez lur zati bat
ahalko duzu ondu
ezin baita bakarka
mundua konpondu “***

FITXA ARTISTIKOA

- GIDOIA ETA ANTZEZPENA:
Janire Arrizabalaga, Izaro Bilbao eta Aritz Katarain
- ZUZENDARITZA: Iraitz Lizarraga
- ESZENOGRAFIA: Alvaro Ledesma
eta Idoia Beratarbide
- ARGI DISEINUA: Junki Mayo
- LAGUNTZAILEAK: Miren Amuriza, Ibil Bedi,
Ixone Asategi eta Haize Lekuona
 - KARTELA: Unai Anso

FITXA TEKNIKOA

- NORI ZUZENDUA: Gazte eta helduak
- ESPAZIOA: Oholtzan zein lurrean
Espazio minimoa 7 x 5 m.
- LEKUA: Antzokiak, kultur etxeak,...
- IRAUPENA: 60 min.
- MUNTAIA: 5 ordu
- DESMUNTAIA: ordu bete
- AURREKONTUA:
2200€ + BEZ (%21)
Herri mugimenduentzat katxe berezia



KONTAKTUA

Marta Agirrezabala Zubillaga

Marketina eta Komunikazioa

marketina@lanku.eus

675716472 - 943 26 07 55

www.lanku.eus